



## DOSSIER DE PRENSA



[www.elsecretodelaspiedrasrojas.com](http://www.elsecretodelaspiedrasrojas.com)

## AURKEZPENA

Leku batzuetan, iraganeko gertakari eta pertsonaiak liburuetako orrialdeetatik atera eta kale-kantoiez jabetzen dira, beren omenez jarritako oroigarriei begira eta ondorengoei utzitako ondarea gogoraraziz. Arrigorriagan, bertatik bertara soma daitezke oraindik euskaldunen historiara kondaira jantzita igaro den mito baten oihartzunak: Padurako Bataila, bizkaitarrek Asturias eta Leongo erregeen subiranotasunetik askatu eta beren Jaurerria sortzeko egindako gudua.

‘Harri gorrien mezua’ren bitartez, Arrigorriagako Udalak audio-gidez lagundutako doako bisitaldia proposatzen die handiei nahiz txikiei, herriaren iragana eta Euskal Herriaren historiarekin duen lotura ezagutarazteko asmoz. Ibilbidearen ardatz nagusia Padurako Bataila da, herriari oraingo izena eman eta 888. urtean Bizkaiko Jaurerriaren sorrera markatu omen zuena. Arrigorriaga Euskal Herriaren historiarekin lotzen duen gertakari honetatik abiatuta, ibilbideak denboran barna bidaiatzeko aukera ematen du, euskararen jatorrian eta euskal mitologian sakonduz eta Ameriketarako emigrazioa, industrializazioa, Foru Erregimena eta Karlistadak bezalako fenomenoek nondik norakoak arakatzuz.

## **'HARRI GORRIEN MEZUA'**

### **IBILBIDEKO ETAPAK**

'Harri gorrien mezua'k zortzi etapaz osatutako kilometro eta erdi inguruko ibilbide erakargarria zehaztu du Arrigorriagako lekurik ezagunenetan barna, bisitariak denbora-mugarik gabe egiteko modua izan dezaten. Ibilbidean zehar, parte hartzaileek zoruan jarritako seinaleak aurkituko dituzte geldialdi guztietan, eta adierazitako gune horiei buruzko xehetasunak bisitaldiaren hasieran emango zaizkien audio-giden laguntzaz entzun ahal izango dituzte. Ibilbideko lehen gunea herriko plazan dagoen Eskola Zaharra da. Eraikinaren beheko aldean, gainera, Informazio Gunea kokatu da. Gune honetan banatuko diren audio-gidek ibilbide honetarako propio egindako jatorrizko musika eta efektu bereziak dituzte. Doinuak Ibon Koteron, Joselu Angulo, Ruben Isasi eta Roberto Sanchez musikari ezagunek konposatutakoak dira. Horrez gain, nobela historikoan eta narrazio laburretan jardundako Jose Luis Urrutia idazle bilbotarra ibilbideko eduki historikoak lantzeaz arduratu da.

Audio-gidarekin batera, Udalak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratutako komiki bat banatuko dut bertaratutakoen artean. Komikiak, 30eko hamarkadaren hasieran Espainiako egoera politikoaz informatzeko Euskal Herrira etorri zen Wojciech Kolakowski kazetari poloniarren lekukotza laburbiltzen du. Kolakowskik Arrigorriagan ostatu hartu eta auzoko batzuen testigantzari esker, herriaren historia ezagutzeko aukera izan zuen, bai eta Arrigorriagak Bizkaiko Jaurerriaren sorreran eta euskal herriaren geroko bilakaeran izan duen garrantzia ere.

Kolakowskik Arrigorriagan zehar egin zuen ibilbidea da, hain zuzen ere, orain Udalak bisitariari proposatzen diena, eta bertan, zortzi gune zehaztu dira herriaren bereizgarriak gogoratzeko, Padurako Bataila kasu, eta euskal historia orokorraren gertakari batzuk nabarmentzeko, hala nola, Gerra Karlistak eta Foruen abolizioa.

Audio-gisa eta komikia ez ezik, urriaren 31ra arte "Harri gorrien mezua" ezagutzera hurbiltzen direnek txartel bana jasoko dute, herriko tabernetan edaria eta pintxoak doan hartzeko eskubidea emango diena.

## **1- ESKOLA ZAHARRA - EUSKARA, EUSKALDUNEN HIZKUNTZA.**

Arrigorriagan zehar egin beharreko ibilbidea Eskola Zaharretik abiatuko da. Bisitaldi honen helburua euskal kulturaren ezaugarri bereizgarrienetako batzuk argitzea da, eta horretarako, ez dago ezer hoberik euskarari buruz, euskaldunen hizkuntzari buruz, hitz eginez hastea baino. Euskararen jatorria misterioa da gaur egun ere, eta urteak joan eta urteak etorri, era guztietako teoriak sortu dira horren inguruan. Batzuen esanetan, paradisuari erabilitako hizkuntza izan zela zioten, eta beste batzuek Afrikaren iparraldeko edota Kaukaso aldeko hizkuntza batzuekin lotu zuten.

Ziurtasunez esan daitekeen gauza bakarra da, agiri batzuen arabera, erromatarrak etorri aurretik ere euskara bizirik zegoela. Eta XII. edo XIII. mendeetan, Euskal Herrian eta Gaztelako iparraldeko eta Aragoiko lurralde batzuetan, euskaraz hitz egiten zela. Gaur egun, euskara berreskuratzeko prozesuan dago, eta honi esker, ia 800.000 pertsonak erabiltzen dute.

## **2- ANDRE MARIA MAGDALENA - EUSKAL MITOLOGIA.**

Andre Maria Magdalena Elizara helduta, ibilbidearen bigarren gunean aurkituko gara. Bertan ehortzi omen zuten Ordoño printzea, Alfontso III.a errege asturleondarraren seme eta Padurako Batailako protagonistetako bat. Ibilbidearen geldialdi honetan ikusiko dugu nola berenganatu zuten euskaldunek kristautasuna, baina betidaniko sinesmenei uko egin gabe. Horrela, berealdiko atxikimendua (eta beldurra) sentituko dute Marirekin. Hauxe da euskal mitologiako jainkotasun nagusia, eta numen bakar batek izen desberdinak har ditzakeela adierazten digun adibide ezin egokiagoa.

Gaur egun ezagutzen dugun moduan, euskal mitologia ez da inondik ere mitologia bereizia, Euskal Herrian zehar igaro diren herrien sinesmen desberdinen arteko nahas-mahasetik sortua baizik. Horrez gain, euskal mitologiak ez du eredu zurrun bar, baizik eta ezaugarri desberdinak hartzen ditu herririk herri.

### **3- PERGOLA - PADURAKO BATAILA.**

'Harri gorrien mezua'ren erdigunera iritsi gara, Padurako Batailaren oroimenezko monumentura. Kondaira jantzitako gertakaria denez gero, zenbait historiagilek duda ere egin dute benetan gertatu ote zen, baina hala eta guztiz ere, gudu honen sustrai sakonak hedatu ditu herriaren iruditegian. Ildo berean, askoren iduriko, Padurako zelaietan asturleondarren aurka lortutako garaipenak Bizkaiko Jaurerriaren sorrera zehazteaz gain, euskaldunen askatasunaren aldeko ahaleginaren eredutzat jo daiteke.

Bizkaitarren zerga bat ordaindu behar izaten omen zioten 888. urtera arte Asturias eta Leongo erregeari. Urte horretan, Ordoño printzeak, zeinaren sepulkroa Andre Maria Magdalena elizan ikusi dugun, harrapaketa-eraso batzuk hasi zituen Bizkaian zehar, aita Alfontso III.ak aginduta. Bizkaitarrek printzeari aurre egitea erabaki zuten orduan, eta kondairak Eskoziako erregearen ilobatzat jotzen duen Jaun Zuriari guduan buruzagi izatea eskatu omen zioten.

Bizkaitarrek eta asturleondarrek elkarren aurkako erasoari ekin zioten Paduran, eta gudua hain izan zen odoltsua, non lurra eta harriak odolez estalita geratu baitziren. Hortik omen dator —(h)arri gorri— herriaren egungo izena. Ordoño Jaun Zuriaren eskuetan hil zen, eta honek bizkaitarrei askatasuna itzultzeaz gain, Bizkaiko Jaurerriaren sorrera erraztu zuen, Jaun Zuria lurralde historikoko lehen jaun izendatu zutelarik.

### **4- ANFITEATROA - BATZAR NAGUSIAK.**

Anfiteatroan eserita, bisitariak bertatik bertara imaginatu ahal izango dute nolakoak ziren Bizkaiko Batzar Nagusien bilerak. Hauxe izan zen bizkaitarren bizimodua gidatu zuen gobernu erakunde nagusia goi Erdi Arotik hirugarren Gerra Karlista galdu arte.

Lau hilabetez behin, batzarkideak, hau da, lurralde historikoko elizate, hiribildu eta hiri guztietako ordezkariak, Gernikan batzartzen ziren, Antiguako Andre Maria ermitan landatuta zegoen haritz baten inguruan, bizkaitarren legeak, edo Foruak, elkarren artean adosteko asmoz. Euskal Herriko foruen eta Batzar Nagusien abolizioak euskaldunen askatasunaren sinbolo bihurtu zuten Gernikako Arbola. Sinbolo horrek bizirik iraun du gaurdaino.

## **5- MOIORDIN ZUBIA – GERRA KARLISTAK.**

Bosgarren geldialdian Moiordin zubira helduko gara. Arrigorriagak behin eta berriz berreraiki behar izan du zubi hau, azken aldiz 1983ko uholdeen ondoren. Gure ibilaldi historikoari dagokionez, zubi hau hirugarren Gerra Karlistaren hasierako gudu baten eszenatoki izan zen 1872an. Gatazka honetan, herria Espainiako tronua bereganatu nahian zebilen Karlos VII.a erregegaiaren jarraitzaileen —Bilbo hirugarren aldiz setiatu zutenen— menpe geratu zen berehala.

1876an, gerraren azken hilabeteetan eta Alfontso XII.a koroatuta zegoela, Arrigorriagan hamar kanpaina-ospitale instalatu ziren. Urte horretan, karlisten galerak Foruak eta Batzar Nagusiak bezalako pribilegioen ezeztapenez ekarri zuen. Foru Erregimenaren abolizioak eragindako ezinegonaren haritik, euskal abertzaletasuna sortu zen urte batzuk geroago.

## **6- KULTUR ETXEA. - EKONOMIA.**

Baina garai gatazkatsu honek ez zituen soilik guduak eta kanpaina-ospitaleak ekarri Arrigorriagara. XIX. mendearen amaieran, herria, egungo enpresa-bilbatuaren sorgunetzat jo daitekeen industria garrantzitsu baten garapenaren lekuko izan zen. Urte haietan, megintzaren bultzadari esker, zenbait lantegi jardunean hasi ziren, hala nola, Harino Panadera, Barbier Anaiena eta, batez ere, Papelera Española, 90eko hamarkadara arte lanean egon zena.

Industrializazio prozesu honek bere horreketan jarraitu zuen 1929ko crack-ak eragindako krisi ekonomikoaren eta Gerra Zibilaren ondoren, eta Espainiako lurralde desberdinetatik etorritako etorkin ugariaren helduera erraztu zuen, herriaren baserri giroko irudia aldatuz, gaur egungo irudia lortu arte.

## **7- BARUAKO PARKEA - AMERIKETARAKO EMIGRAZIOA.**

Industrializazioak erakarrira gugana etorri ziren etorkinei harrera egin aurretik, Euskal Herriko seme-alaba asko zerumuga berrien bila abiatu ziren. Ibilaldiaren zazpigarren geldialdia markatuta daukan parke honek euskal herriaren izaera osatu duen beste konstante bat irudikatzen du: emigrazioa. Testigantza historiko batzuek Euskal Herriko abenturazaleak, nobleak eta marinela Erromako legioetan, Gaztelako erregeen gorteetan edota Ternuarako baleontzietan errolatu zirela frogatzen dute.

Hemen, Baruan, landare exotikoek garai hurbilagoak gogorarazten dizkigute. Amerikaren aurkikuntzaz gerotik, kontinente hau euskaldun askoren jomuga bihurtu zen, eta XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, Karlistadek eta Gerra Zibilak bultzatuta, askotxo izan ziren aterpea edo bizimodua itsasoaz haraindi bilatu behar izan zutenak. Zenbaitzek, indianoak deritzenek, dirutza handiak zekartzatela itzuli ziren, eta hemengo etxeei Ameriketako aberastasunak gogoratzen zituzten ukituak eman zizkieten. Beste batzuk hantxe geratu ziren betiko, herrimin handiaz geratu ere, eta 'Euskal Etxeak' sortu zituzten.

## **8- FRONTOI TXIKIA. - HERRI KIROLAK.**

Arrigorriagarako bisitaldiaren amaieran, frontoi txikira iritsiko gara. Honako hau Eliza eta Udaletxea bezain topagune garrantzitsua izan zen. Lehia eta apustuaren zale handiak diren aldetik, euskaldunek eguneroko zereginen alderdirik atseginenak kirol bihurtzen jakin dute betidanik. Baserriko, soroetako, arrantzako eta abeltzaintzako zereginetatik kirol espezialitate bereizgarriak sortu ziren, hala nola, harrijasotzaileak, txinga eroatea, estropadak edota artzain txakurren txapelketak. Horiekin batera, gogoan hartu behar dugu bertoko kirolik ezagunena, pilota alegia. Pilota modalitateetako bat, zesta punta alegia, oso kirol ospetsua da Estatu Batuak, Kuba eta Txina bezalako herrialde urrunetan.

Orokorrean, euskal kirolean ez da ia kontaktu fisikorik egoten aurkarien artean. Herri kirolean ez dago indarkeria edo eraso onartzen duen modalitaterik. Ahalegin eta indar guztiak nork bere burua gainditu eta aurkakoari gaina hartzeko erabiltzen dira, errespetuzko giro betean, bai lehiakideekiko bai epaileekiko ere, hauek emandako azken hitza aintzakotzat hartzen baita, kiroltasun osoz.

### **EGUNAK ETA ORDUTEGIAK:**

'Harri gorrien mezua' ibilbidea larunbat honetatik, ekainak 30, urriaren 31ra arte egin ahal izango da, ondorengo egun eta ordutegietan:

- Asteazken, ostegun eta ostiraletan**, 11:30etatik 14:00etara bitartean.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan**, 11:30etatik 14:00etara eta 17:00etatik eta 19:30etara bitartean.
- Astelehen eta astearteak** taldeentzat erreserbatu dira.

**'HARRI GORRIEN MEZUA' –**

**FITXA TEKNIKO ETA ARTISTIKOA**

**Sorkuntza eta ekoizpena:** LAUTSO S. L.

**Diseinu grafikoa:** Oma 3

**Irudiak:** Javi Kintana

**Gidoia:** Jose Luis Urrutia

**Audio grabazioak:** Ruben Gonzalez

**Kantaria:** Alba Gonzalez

**Musikariak:** Ibon Koteron, Joselu Angulo, Ruben Isasi eta Roberto Sanchez

**Esatariak:** Kepa Kueto, Jose Antonio Calzada 'Surti', Miguel Rios eta Cristina Sena.

Horrez gain, 'Harri gorrien mezua'ren antolatzaileek Arrigorriagan jaio eta Ameriketara joan zen R. Castellote 'Anteiglesia de Arrigorriaga' liburuaren egilearen aparteko aipamena egin nahi dute. 1930ean Bilbon idatzi eta 1975ean Mexiko Hirian argitaratutako liburua laguntza handikoa suertatu da oraingo lan hau egiterakoan.

## **AUDIO-GIDETAKO ETA KOMIKIKO GIDOIAK IDATZI DITUEN JOSE LUIS URRUTIAREN AIPAMEN BIOGRAFIKO LABURRA**

Jose Luis Urrutiak (Bilbao, 1958) poesiaren alorrean eman zituen lehen pausoak literaturaren munduan, eta genero honetan, 'Sangre enamorada' (1981) poema-sorta argitaratu zuen. Bokazio hau baztertu gabe, handik gutxira, narrazio laburren idazketan trebatu zen, eta 1998tik aurrera, nobela historikoa lantzen dihardu. Bere lehen eleberrian, 'El Ayalés' (2001) izenburukoan, Elias de Aldama pertsonaia sortu zuen, beste hiru liburutarako ere erabili duena: 'Los caminos de Elias' (2002), 'Tan lejos de Ayala' (2003) eta 'La sombra de Lanzuri' (2006) eleberrietarako, hain zuzen ere. Horrez gain, 'Los demonios de la guarda' (2004), 'Ignacio. Los años de la espada' (2005) eta 'El Inquilino del balneario de Orduña' (2006) idatzi ditu.

Urrutiak noizbehinkako artikuluak argitaratu ditu 'Aunia' kultur aldizkarian, 'Bilbao' agerkariko 'Pergola' kaieran eta 'Neu' aldizkarian. Berak egindako narrazio labur batzuk 'Geltoki arteko irakurgaiak' eta 'Lecturas en el Arenal' bildumetan argitaratu dituzte. Duela urte eta erdiz geroztik, enpresa historikoei buruzko orrialde bat eta iritzi artikuluak argitaratzen ditu 'Gestion 2-17' ekonomia egunkarian.

**'HARRI GORRIEN MEZUA' –**

**AUDIO-GIDAK**

**1. AUDIOA - EUSKARA, MILAKA URTEKO HERRI BATEN HIZKUNTZA ENIGMATIKOA**

Euskara, euskaldunen hizkuntzaren jatorria misterio bat da gaur egun ere. Euskararen sustraiak XVI. mendean nolabaiteko seriotasunez aztertzen hasi zirenetik, teoria ezberdin asko sortu dira, hizkuntzalarien eta ikertzaileen artean onartuenak lau izan direlarik

Lehenak, "euskoiberismo" bezala ezagutzen den teoriak, hizkuntza bi hauek, euskara eta iberiera, hizkuntza bera zirela defendatu zuen XIX. mende osoan zehar. Bigarren hipotesiak euskararen eta berebarearen arteko antzekotasun multzo bat erakutsi nahi izan zuen XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran. Baina, ondorengo ikerketek bi hizkuntzen sustrai komunak defendatzeko paralelismo hauek ez zirela nahiko erakutsi zuten.

Hirugarren teoria, euskaldunen hizkuntza kaukasiar hizkuntzekin erlazionatzen duena, hizkuntzalari askok defendatzen dute gaur egun ere. Koldo Mitxelena gipuzkoarrak euskararen eta kaukasiar hizkuntzen arteko nolabaiteko kidetasunak aurkitu zituen, besteak beste pertsonaren pluralgilea aditzetan eta abeltzaintzaren eta nekazaritzaren arloko zenbait hitzetan. Laugarrenak, aurrekoa bezain onartuak, euskararen preindoeuropar jatorria defendatzen du. Lau teoria hauek eta beste batzuk sortu dira mendeetan zehar. Herriak neurri batean edo bestean guztiak onartu ditu.

XX. mendearen erdialdera arte teoria guztiek izan zuten jendearen onarpena, euskara iberiar penintsulara Tubalek, Noeren bilobak, ekarri zuela defendatzen zuen teoria edo euskara Paradisuan erabiltzen zen hizkuntza zela defendatzen zuena ere barne zirelarik.

Gaur egun ziurtasunez esan dezakegun bakarra zera da, euskara, euskaldunen hizkuntza, orain arte inork argitu ezin izan duen misterioa dela, bai hizkuntzalaritzaren aldetik baita historiaren aldetik ere.

Orain arte dauzkagun euskarazko lekukotasun idatziak oso urriak dira, garrantzitsuenetariko bat Iruña-Veleia aztarnategian (Vitoria-Gasteizetik 10 km-ra) duela gutxi (2006ko udaberrian) aurkitu dutelarik. Bertan aurkitutako inskripzioek euskarazko lehen hitz idatzien agerpena 600 urtez aurreratu dute. Orain arteko hitz idatzirik zaharrenak "Glosas Emilianenses" direlakoak izan dira, San Millán de la Cogolla herrian XI. mendean aurkitutako latin testu baten oharrak. Honekin batera, inskripzio hauek erromanizazioa baino lehen lurralde hauetako biztanleen hizkuntza euskara zelako froga ere izango lirateke.

Gure hizkuntzak antzina izan zuen hedaduraren mapari dagokionez, erreferentzia historikoek IX eta X. mendeetara garamatza. Garai hartan, "lingua navarrorum" edo "lingua vasconica" deitzen zitzaion euskaldunen hizkuntzaren hedadura askoz handiagoa zen gaur egungoa baino. Iparraldetik Garona ibairaino (Bordele) heltzen zen; Ekialdetik Aragoiraino; Hegoaldetik Errioxan zehar sartzen zen; eta Mendebaldetik Gaztelaren lurralde batzuk ere hartzen zituen.

XI. mendearen bukaeratik euskara atzera egiten hasi zen, batez ere beste hizkuntza batzuen etorreraren eraginez.

Gaur egun euskara berreskurapen aro batean dago, hein handi batean 60ko hamarkadan euskalki ezberdinak bakar batean batzeko (hortik euskara "batua") burutu zen ekimenari esker.

Ekimen honen eta erakunde ofizialen eta pribatuen ahaleginen ondorioz, euskaraz gaur egun, gutxi gora behera, 700.000 pertsonak hitz egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoan eta beste 100.000k atzerrian. Eta honek esan nahi du euskaldunen hizkuntza zaharra gaur egun hizkuntza bizia dela.

## 2. AUDIOA- EUSKAL MITOLOGIA.

Ekaitz gau batean andre-irudi bat sugarretan zerua zeharkatzen ikusten bada, ez ditzala inork begiak igurtzi: **Mari** da, euskaldunen jainkosa, etxe batetik bestera doala.

Mari euskal mitologiako jainkorik edo jeinurik ezagunena eta garrantzitsuena eta beraien arteko gehienak bezala emakumezkoa da. Mari Lurraren barrenean bizi da, baina batzuetan haitzulo eta leizeetatik irteten da eta hauen atarian ikus daiteke, patxadan eserita.

Mari ikusi dutela esaten dutenen artean, batzuek jantzi dotoreekiko andrea dela kontatzen dute, esku artean urrezko jauregi bat daukana. Beste batzuek, berriz, ahari baten gainean doala deskribatzen dute. Zaldi, zuhaitz, hodei zuri, bele... eta abarren itxuran ere ikusi dute..., ia Euskal Herrian dauden herriak bezainbeste forma ezberdinetan.

Zazpi urtez behin, Mari etxez aldatzen da. Orduan... emakume, globo edo igitai itxura har dezake, baina beti sugarretan.

Mendi eta mendizerra ezberdin asko erabiltzen ditu Marik etxe bezala (Aralar, Aizkorri, Txindoki, Gorbeia...), baina bere gogokoena, inolako zalantzarik gabe, Anboto harritsua da, Durangaldeko mendietan. Horregatik herriko jendeak *Anbotoko Dama* deitzen dio, Bizkaian bereziki.

Jainkosa hau gure mitologiako pertsonaiarik karismatikoena da eta **Sugaar**ekin, "Suge Ar" beldurgarriarekin, nolabaiteko bikote-harremana daukala uste da. Marik bezala, Sugaarrek zerua sugarretan zeharkatzen du. Bere agerpena ekaitzaren seinale bezala hartu izan da. Azkoitia aldean **Maju** izenaz ezagutzen dute eta Mariren senartzat hartzen dute. Ostiral guztietan elkartzen omen dira biak.

Numenik ezagunenetariko beste bat **Basajaun** da, basoetako Jauna. Giza itxura du eta nahiz eta altuera itzela, bizar itxia, gerrirainoko ile luzea eta itxura ankerra izan, jendeak asko estimatzen du otsoa uxatzen duelako eta artzainei ekaitzen etorreraz ohartarazten dielako. Zenbait eskualdetan lehen errotaria, lehen errementaria eta lehen nekazaria izan zela uste dute, gizakiari lanbide hauek irakatsi zizkiona.

**Gaueko** gaueko Jauna da. "Eguna egunekoentzat; gaua gauekoentzat" dio esaera zahar batek eta hor "egunekoak" gizakiak dira eta "gauekoak" Gaueko. Honek etxetik kanpoko jarduera guztiak debekatzen ditu gauerditik oilarrak jo arte eta iluntasunari eta isiltasunari beldurrik ez dietela harrokeriaz aldarrikatzen dutenak, hots, bere denbora mesprezatzen eta bere nagusitasuna zalantzan jartzen dutenak, gogor zigortzen ditu.

Euskal Herri osoan zehar entzuten dira neskatxei buruzko istorioak, Gauekoren aginduak bete gabe eta bere botereari trufa eginez etxetik beharrik gabe gauez irtetearen ordainez Gauekok bahitutakoak. Aipatutakoekin batera, asko dira euskal mitologiaren unibertso bitxia osatzen duten jenio eta jainkoak: Inguma, Tartalo, Akerbeltz, Aideko, Mamarro, Ieltxu, Lamia pinpirinak, Galtzagorri txikiak...

Euskaldunek betidanik izan dute begirune eta mirespen handia funtsezko elementuekiko. **Lur**, Lur planeta, Eguzkiaren eta Ilargiaren amatzat hartzen da. **Urtziri**, zeruari, udaberriko euri onuragarriak egozten zaizkio.

Euskaldunek betidanik gurtu dute Eguzki, astro nagusia, arte herrikoaren oroitarrietan ikus daitekeen bezala. Honen adierazgarria hilarriak dira, adibidez, hemen bertan, Arrigorriagako Andra Mari Magdalenakoaren eliz atarian harrizko sarkofagoaren ondoan ikus daitekeena. Hilarri askotan arrosa-leihoak, biribilak eta Eguzkiaren irudiak agertzen dira, eta batzuetan Ilargiarenak ere bai. Ilargiarekin zerikusia duen guztia xarmaz eta ametsez inguraturik dago.

Gaur egun ezagutzen dugun euskal mitologia fase ezberdinen ondorioa da eta, baita ere, beste sinismen eta kultura batzuekin nahastearen ondorioa. Oso berezia da, ez baitio eredu bakar bati erantzuten. Honela, jainko berak izen ezberdina izan dezake toki ezberdinetan eta baita kontrako portaerak ere.

Baina batez ere oso mundu eder eta fantastikoa da, kodez eta magiaz betea, duela gutxira arte gure bizitzan presentzia nabarmena izan duena.

Ziur aski, Euskal Herriko herri batean baino gehiagotan norbaitek, gure mitologiako jeinu ezberdinetan sinisten ote duen galdetuko bagenio, antzinatek gomendatzen den esaldiarekin erantzungo luke irribarretsu:

***"Izena duten izaki guztiak existitzen dira, baina ez da esan behar existitzen direnik".***

### 3. AUDIOA – PADURAKO BATAILA.

Kondairak dio eliz atarian dagoen harrizko sarkofagoan Ordoño leondar printzearen gorpua dagoela. Hilobi hau herriari izena eman zion bataila izugarriaren froga nabarmena omen da. Gertaera hau nolabait Euskalerrriaren historiako lehen mugarri epikoetarikotzat hartzen da gaur egun ere: **Padurako bataila**. Baina sarkofagoa benetan XIV. mendeko hilobi apala da eta bataila ziurrenik ez zen inoiz gertatu. Baina berari buruzko kondaira hain zaharra denez eta mendeetan zehar hainbeste jenderi eragin dionez, kondaira ezagutzea interesgarria izan daiteke.

Gertaera hau kontatzen duten lehen testuak 1340. urtearen inguruan idatzi ziren eta ordurako zaharra zen kondaira eta mundu guztiak ezagutzen zuen. Ondoren, idazle eta kronikagile askok bataila handi horren aurreko gertaerak eta zergatiak bertsio ezberdinetan kontatu dizkigute eta, baita ere, batailaren ezustezko emaitzak ekarri zituen ondorioak. Beren ahotsak entzunez, kondaira gogoangarri eta ilun honen barruan murgil gaitezke eta Arrigorriagan 888. urteko ekaineko egun batean gertatutakoari buruz esaten dutena ezagutu ere...

Lehenengo asturleondar erregeen garaietatik Bizkaiko lurraldea behartuta zegoen urtero zerga berezi bat ordaintzera: zaldi bat, behi bat eta idi bat, zuriak hirurak, kolore honetakoak garestiagok baitziren. Urtero, bizkaitarrak Oviedora joaten ziren eta berezko irainaz gain, "vaqueira"ren oihartzuna ere jasan behar izaten zuten. Oihartzun hau mendi asturiarretako tontorretatik ohitura mingarri hura haranez haran aldarrikatzen zuten bertsoena zen. IX. mendearen erdialdean, Eskoziako erregearen alaba bat, bere herrialdetik alde egitera behartuta, gaur egun Mundaka den lekuan lehorreratu omen zen. Berarekin gizon eta emakume asko zetozen, itsasontzi batzuetan. Ekaitz eguna zen eta kostaldera hurbildu zirenean urak oso gardenak zirela ikusteaz batera "aca Munda" hitzak esan zituzten, "ur gardena" esan nahi dutenak eta horregatik deitu zioten Mundaka. Hain gustura egon zen printzesa leku horretan eta bertako jendearekin, beraien artean bizitzen gelditzea erabaki baitzuen.

Gau batean printzesa ametsetan zegoela deabru bat bere gelara sartu eta berarekin egin zuen lo. Deabru honi Bizkaian Sugetzar deitzen diote, Etxeko Jauna, eta Lope García de Salazar kronikagileak idatzi zuen bezala **"...printzesa haurdun utzi zuen eta honek seme bat izan zuen, gizon sendo eta gorputz ederrekoa izango zena, eta On Zurian deitu zioten, edo Jaun Zuria."**

Jaun Zuri honek hogeita hamar urteak oraindik beteta ez zituenean, Asturiaseko eta Leoneko erregea zen Alfonso III.ak, Magno izenaz ere ezagunak, bere seme Ordoño Bizkaian barrena harrapakeria-sarraldi bat egitera bidali zuen. Printze hau Bakioraino heldu zen, bidean topatu zuen guztia harrapatu ondoren. Bizkaitarrak, ohi bezala, Gernikan bildu ziren eta bertan eztabaida luzeak egin ondoren, bi erabaki hartu zuten: bata, urteko zerga ez zutela berriro ordainduko Ordoñori jakinaraztea, eta bestea, Ordoñorekin borrokatzera joatea, berari heriotza emateko ala, osterantzean, guztiok borrokan hiltzeko.

Asturleondar printzean erantzun zien ez ziela borrokatzeko aukerarik emango, ez beraiei ezta erregea edo errege-odolekoa ez zen inori ere. Orduan, bizkaitarrek Jaun Zuriarengana jotzea erabaki zuten, hau Eskoziako erregearen biloba baitzen. Jaun Zuriari bidezkoa iruditu zitzaion eta bataila hartan buru izatea onartu zuen.

Deiadar mendien tontorrean suteak piztu eta adarrak jo zituzten; Bizkaiko herri eta herrixka guztietan, gizonek, emakumeek, haurrek eta agureek armak zorrozteari, hesiak eraikitzeari eta janaria eta ura biltzeari ekin zioten. Guztia prest zegoenean, Jaun Zuria bere armadaren aurrean, On Santxo Eztigiz, Durangoko jauna, tartean bere gizonekin zegoelarik, Leoneko erregearen semearen armadaren bila abiatu zen. Padurako haranean topatu zirenean bataila gogorra eta luzea izan zen bertan ... **"armada bietako soldadu asko hil ondoren, leondarrak galtzaile atera ziren eta erregearen seme hura hilik suertatu zen, bere aldeko armadako askorekin batera"**.

*"... eta Paduran hainbeste odol isuri zenez, leku hari Arrigorriaga deitu zioten, gaur egun deitzen zaion bezala, euskaraz jatorriz "odolez blaituriko harria" izan zitekeena ... eta Jaun Zuria Bizkaiko Jaun izendatu zuten."*

Gaur egungo historialari eta ikertzaile gehienek ustez, Jaun Zuria, Padurako bataila eta berau inguratzen duen guztia Erdi Aroko asmakeriak baino ez dira. Historikoki ez dago Arrigorriaga odolez busti zuen bataila hura benetan gertatu zelako frogarik. Beste hainbat fantasiako batailarekin bezala, Covadongakoa edo Clavijokoa kasu, fikzioa, errealitatea, historia zatiak eta ia mirarizko gertaerak nahasten dituen hodei magiko batean ezkututzen da.

Baina, egia ala gezurra izanik ere, Padurako bataila mitikoaren benetako balioa bere narrazioak mendeetan zehar irautea izan da, ideal batzuen ikur bihurtu delarik. Bataila hau eskubide batzuen eta gobernatzeko modu baten irudia da eta zenbait alderditan euskaldunen nortasun propioaren oinarri bihurtu da, kanpotarren aginteari aurre egin zion komunitatearena hain zuzen ere.

Arrigorriagan, batailaren oroitzapena ez da bakarrik aurkitzen eliz atariko harrizko hilobian, herriaren armarrian ere aurkitzen baita. Bertan, latin gurutzearekin eta zuhaitzarekin batera, bi otso ikus daitezke, ahoan arkume bana daramatelarik. García de Salazar kronikagilearen ustez, otso hauek **"Jaun Zuriak batailara abiatu zenean topatu zituen, ahoan arkume erre bana zeramatela. Señale on bezala hartu zuten, garai hartako gizonak iragarpen zaleak baitziren"**.

#### **4. AUDIOA - BATZARRAK.**

Komikiaren orrialdeetan On Pedro Murok, Arrigorriagako alkateak, Bizkaiko Batzar Nagusiei buruz hitz egin digu. Horrela, zuhaitz bat eta berau inguratzen zuten harri sakabanatu batzuk aipatu ditu. Han batzartzen zirenak harri haien gainean esertzen ziren. Orain gauden leku hau, anfiteatro txukun hau, oso eszenatoki egokia da mendeetako Batzar haietako bat gogoratzeko. Eser gaitezen bere harmailetan eta minutu batzuetan Bizkaiko bazter guztietatik adarraren oihartzunari segituz etorritako batzarkide haietako bat bihur gaitezen.

Lau hilabeterik behin, adarren soinu baxuak hegan egiten zuen Bizkaiko bazter urrunenetaraino. Adar hauek, "dei-adar" ere deituak, mendi jakin batzuetatik jotzen ziren eta honegatik deitzen zaie "deiadar mendiak". Bost ziren mendi hauek, guztiak leku estrategikoetan kokatuak, Bizkaiko lurralde osoa menperatzeko: Sollube mendia Bermeo ondoan, Kolutza mendia Enkarterrietan, Ganekogorta mendia Bilbo eta Suduperen artean eta Gorbeia famatua Arratiako haranaren gainean.

Mendi hauetatik igortzen zen deiadarra mundu guztiak ezagutzen zuen: Batzar Nagusietarako deialdia. Erdi Aroa baino lehenagotik Bizkaiko biztanleak noizean behin batzartzen ziren bere gobernuari buruzko gaiak tratatzeko. Jaurerria 1.040. urtean sortu zenez geroztik, bizkaitarren iritzia demokratikoki hautatutako ordezkari batzuen eskuetan utzi ziren, hauek Batzar Nagusietan defendatu behar zituztelarik.

XVI. mendearen bukaeran, adar edo deiadarren ordezkari agiri idatziak erabiltzen hasi ziren eta orduan haizeak eraman beharrean mezulariek eramaten zituzten beren zaldi azkarren gainean.

Honela, Batzarretara deitutakoak Gernikarantz abiatzen ziren, bertan alde zuzenetik finkatutako eguneko egoteko. Egundua beti asteartea izaten zen batzarkide guztiek Gernikara joan baino lehen beren elizateetan meza entzuteko denbora izan zezaten eta, era berean, hurrengo igandean Gernikatik itzultitakoan.

Errituala seriotasun handiz ospatzen zen: Korrejidorea, Ahalduen Nagusiak, Sindikoak, Zinegotziak, jaurerriko ofizialak eta elizateetako, hiribilduetako eta hiriko ordezkariak, Gernikako udaletxean bildu ondoren, guztiak prozesioan joaten ziren Arbolaraino, bertan Jaurerria osatzen zuten udalen izenak ozenki irakurtzen zirelarik. Ondoren, guztiak Antiguako Andra Mari elizara, zin egiteko eliza berria, sartzen ziren Meza erreztatua entzuteko. Meza bukatutakoan kanpora irteten ziren eta Foru Deialdia berriro egiten zen, antzinatasunaren arabera hurrenkeran.

Hurrenkera honek aldaketak izan zituen mendeetan zehar eta 1854. urtean finkatuta geratu zen: Arrigorriaga 39. postuan zegoen, Bilbori lehen postua zegoen eta Basauri 115. a, azkena.

Batzar Nagusiek 1877. urtera arte etenik gabe iraun zuten. Urte hartan, hirugarren Gerra Karlistaren ondoren, Carlos del Castilloren gobernuak ezeztatu egin zituen, Foruekin batera. Mende bat pasa behar izan zen erakunde honek bere eskumenak berreskuratu ahal izan zitzan.

Foruei eta Batzar Nagusiei buruz hitz egiten denean, ezinbestekoa da Gernikako Arbolararen aipamen berezi bat, laburra bada ere, egitea. Gaur egun Arbola dagoen lekua antzina batean Lumoko elizatearen esparruan zegoen eta bertan harizti bat eta baseliza bat baino ez zegoen. Denbora aurrera joan ahala, hariztia murriztuz joan zen Foruen Arbola bakarrik geratu arte. Baseliza, bere aldetik, Antiguako Andra Mari zin egiteko eliza bihurtu zen eta bere inguruan beste zenbait eraikuntza erantsi ziren. XIV. mendetik aurrera etxe multzo hau Gernikako Juntetxe bezala ezagutu izan da.

**Gernikako Arbola gaur egun ez da bakarrik bizkaitarren askatasunaren ikurra, euskaldun guztien askatasunarena baizik.**

## 5. AUDIOA - GERRA KARLISTAK.

Arrigorriagako bataila gogoangarria historiaren une batean edo bestean benetan izan ote zen ez badakigu ere, argi dagoena da, zalantza izpirik gabe, leku horretan bi armadak elkarri aurre egin diotela behin baino gehiagotan. Arrigorriaga inbutu bat da, leku estrategiko bat non Nerbioi harana estutzen baita Ibaizabal arrora zabaldu baino lehen. Hemengo zubia menperatzen duenak Bilbo Gaztelarekin lotzen zuen bidearen giltza dauka. Gure aurrean daukagun zubiak Nerbioiren bi aldeak lotzen ditu eta Moiordin izena du. 1983ko udako uholde ikaragarriak zubi zaharra suntsitu egin zuen eta bere ordeaz oraingo hau eraiki zen.

Zubi zahar hura bere aurreko harrizko zubi zaharragoaren gainean eraiki zen. Harrizko zubi hark arku batzuk luzatzen zituen uren gainean eta hauxe da hiru ehiztari zaharrek, karlisten taldeetako beteranoak, Antxonekin eta *Kolirekin* topatzen direnean zeharkatzen duten zubia.

Azken Gerra Karlistako hasierako liskarretan, 1872. urteko maiatzaren 7an gertatu zen bataila gogorraren lekuko izan zen zubi hau.

Arrigorriagaren historiako une hura gogoratu ahal izateko, orain ikusten ari garen paisaiatik oso ezberdina zen beste bat imajinatu behar dugu.

Isola dezagun zubia eta, eraikin guztiak ezabatuz, marraz ditzagun lur landuak eta ortuak ibaiaren bi aldeetan, duela minutu batzuk bisitatu dugun elizaren ondoko etxeetaraino. Gaur egun Arrigorriagaren erdigunea den eremua baserri sakabanatuen lurak ziren.

Bada, leku honetan armada liberalaren zutabe bat zegoen, Amadeo I. aren aldekoa, karlisten tropek herria inguratu zutenean. Agintari militarrek errefortzuak bidali zituzten Bilbotik eta setiatuek alde egin ahal izan zuten, baina Arrigorriaga karlisten menpean geratu zen. Karlisten tropak asko ez baziren ere, Bilboko ateetaraino hurbiltzeko ausardia izan zuten eta honen ondorioz bilbotar liberalak egun batzuetan urduri samar egon ziren. Bilbon barrena aurrera egin izan balute, gerraren bilakaera zeharo ezberdina izan zitekeen, Bilbok artean ez baitzuen denborarik izan bere defentsa antolatzeko. Baina ez ziren Bilbo konkistatzen ausartu.

Gerrak lau urte luze iraun zuen eta azkenean 1876. urtean bukatu zen. Baina borrokaren azken liskarretan Arrigorriagan 10 landa-ospitale antolatu ziren inguru guzti hauetako zaurituak zaintzeko.

Gerra hartan karlistak, aurreko bi gerretan bezalaxe, galtzaile atera ziren eta Euskal Herriko nekazal munduak suntsipen eta irain bezala hartu zituen gerraren ondorioak, bere eskubide asko eta ohiko antolatze modua galdu zituelako.

Urte hartako bertako uztailan Cánovas del Castilok, Espainiako gobernuburuak, Bizkaiak, Arabak eta Gipuzkoak ordura arte zeuzkaten pribilegioak, hots, zergak ez ordaintzeko eta soldadutza ez egiteko salbuespenak, ezeztatu zituen.

Urtebete geroago Batzar nagusiak ezeztatu ziren.

Foruen ezeztapenak kultura mugimenduak eta talde politiko berriak sortzea ekarri zuen eta erreakzio bezala berpizkunde kultural bat sortu zen. Berpizkunde honek euskararen garrantzia eta euskal sentimendu gogorra bultzatzen zituen eta mendearen azken urteetan euskal abertzaletasunaren sorrera bilakatu zen.

Gerra Karlistek sendatu gabe utzi zituzten zauriak berriro ireki ziren, berebiziko indarkeriarekin, 1936ko udan, Gerra Zibilaren hasiera izango zen militar matxinoen altxamendua izan zenean.

## 6. AUDIOA – EUSKAL EKONOMIA.

Arrigorriagako eta Bizkaiaren parte handi bateko benetako "harri gorriak" lurpean ezkutatzen ziren burdina meazko harriak ziren. Arrigorriagatik Kantabriaraino zeuden burdina hobi oparoak erromatarren garaietatik ezagunak ziren, baina XIX. mendearen erdialdean lehergai eta teknika modernoak erabiliz ustiatzen hasi ziren, Belgikara, Frantziara eta, batez ere, Britainia Handira esportatzeko.

XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako urteak Euskal Herriak izan duen garairik oparo eta emankorra izan da. Meatzaritzaren etekinei esker banketxeak sortu ziren, untzigintza eta burdinbideen eraikuntza handitu ziren, zementu eta paper fabrikak sortu ziren eta euskal ekonomia osoa hedapen eta optimismo berebiziko bolada batek bultzatu zuen. Industriaren garapena eta lana erraz aurkitzeko aukerak ikusita, hamarnaka mila emigratzaile Euskal Herrira joan ziren Espainiako probintzia ia guztietatik. Laster, Bilbo inguruko herrietan ohiko baserrietako nekazariak, fabriketako ugazaba aberatsak eta soldatapeko langile etorri berriak nahastu ziren. 30eko hamarkadaren hasieran Arrigorriagako elizatean 4.000 pertsona inguru bizi ziren.

Ordurako bere egitura industrialia ondo finkatuta zegoen eta Nerbioi haraneko bigarren hirigune garrantzitsuena zen. Arrigorriagako industrializazio prozesua XIX. mendearen bukaeran hasi zen meatzaritzak bultzatuta, baina handik gutxira sortuko ziren, baita ere, Harino Panaderako lantegia, Barbier Anaien iltze fabrika eta herrian hurrengo hamarkadetan eraginik handiena izango zuen enpresa: Papelera Española.

Enpresa honen sorreraren ondorioz populazioa handitu egin zen, batez ere enpresa talde honetako enpresa ezberdinetatik, bereziki Gipuzkoa, Nafarroa, Albacete eta Zaragozatik, heldutako langile gaituen etorreragatik

1932. urtean Papelera 590 pertsonen egiten zuten lan eta 1925. urtean sortutako Hilaturas Ibaizábal enpresan 275ek. Arrigorriagan ia ehun urtez jardun ondoren, Papelera Española enpresak bere jardura eten zuen 90eko hamarkadan.

Gaur egun Arrigorriagak egitura industrial sendoa du, 200 enpresa baino gehiago hartzen dituzten lau industrialdetan banaturik.

## 7. AUDIOA- EUSKALDUNEN EMIGRAZIOA AMERIKETARA

Beren sorterriarekiko atxikimendu handia daukaten arren, euskaldunek ez dute inoiz zalantza izpirik izan, bizitzaren gorabeherak hala eskatuta, bizimodua beren sorterritik urrun bilatzeko.

Colon-ek Amerikaren berri mundu zabalean eman zuenetik, euskaldunek halako lilura berezia sentitu dute Amerikarekiko. Hain zen handia lilura hau, ezen Bizkaia XVI. mendean ia gizonezko biztanlerik gabe geratu baitzen.

Hau, zalantzarik gabe, gehiegikeria da, baina egia da kontinente berrira egindako lehen bidaiak ehundaka marinel euskaldun joan ziren eta hauen atzetik milaka soldadu, funtzionari, apaiz eta artisau euskaldunek bide bera hartu zuten. Amerikarako emigrazioa beti izan da irtenbide bat "bigarren" semeentzat, hots, baserria oinordetzan hartu ez eta bertan bizitzen geratzeko aukerarik ez zeukatenentzat.

Milaka euskaldun joan ziren Ameriketara XVI. mendearen hasieratik, halaber, hilabete batzuetako lan kanpainetara, adibidez, baleen arrantzan Ternua eta Labradorreraino joaten zirenak.

Amerikaren aurkikuntzatik mende batzuk pasa ondoren, emigrazioa, hasierako garaietako abentura edo handinahia baino gehiago, arazo politikoen ondorioa izan zen. Frantziako Iraultza Iparraldean, geroago Gerra Karlisten ondoren Pirinioen alde honetako probintzietan suertatu zen Foruen ezeztatzea eta geroago izango zen Gerra Zibila milaka euskaldun Argentinara, Uruguayra, Mexikora, Estatu Batuetara... joateko arrazoiak izan ziren

Emigrazioa ez zen gelditu Ameriketako kolonien independentziaren ostean, baina orduan Atlantikoa zeharkatzen zutenak ez ziren funtzionariak, baserrietako semeak baizik, nekazari aske bezala edo amerikar kontinenteko herrialde berrietako landa zabaletan abere talde handietako zaintzaile bezala bizimodu bat bilatzera joaten zirenak.

Arrazoi ezberdinengatik etorkizuna Ameriketara bilatu zuten asko eta asko bertan geratu ziren betiko. Beste batzuk denbora bat pasa ondoren itzuli ziren, berauetako batzuk dirutza baten jabe zirelarik.

Beren herri eta hirietara itzuli ziren, luxuzko etxeak eraiki zituzten eta kasu askotan beren jaioterria hobetzen lagundu zuten. Herrietan "indiano" bezala ezagunak ziren eta bertako gazteentzat benetako mito eta eredu bihurtu ziren.

Beraiekin zuhaitz eta landare exotikoak ekarri ohi zituzten, beren etxaldeetako lorategiak hornitzeko. Momentu honetan gauden lorategi hau, Barua parkea, horren adibide bizia da. Minutu batez eserleku hauetako batean esertzen bagara eta ingurura begiratzen badugu, izaki bizi hauen presentzia eta besarkada sentitu ahal izango dugu. Izaki hauek esker oneko gizon eta emakumeek ekarri zituzten lur honetara duela urte asko, eskuzabaltasun handiz hartu zituen beste lur urrun haren oroitza penetan.

Gaur egun, ehundaka mila euskaldunen seme-alabak bizi dira munduan zehar sakabanaturik, gehienak egun urrun batean Euskal Herria utzi zuten ondorengoak.

## 8. AUDIOA - HERRI KIROLAK.

***-Mila erreal eta txahal bat zuhaitz hau zuk baino arinago moztu baietz!.***

Honelako erronka batetik sortu zen, zalantzarik gabe, gaur egun Herri Kirol izenez ezagutzen duguna. Kirol hauetan euskaldunen nortasunaren bi alderdi bereizgarri biltzen dira: norgehiagokarako grina eta apustuatarako zaletasuna.

Herri Kirolak osatzen dituzten proba guztien jatorria itsasoan, basoan eta batez ere baserrian egiten zen eguneroko lana da. Azken honek, baserriak, sortarazi ditu Herri Kirolen modalitate gehien, beraien artean hedatuena enborrak aizkoraz moztea izanik. Honen jatorria baserriko sutarako, egur-ikatz egiteko eta etxeak eta itsasontziak egiteko behar zen egurra lortzeko zuhaitzak moztean dago.

Harriak jasotzeak horma edo etxe bat eraikitzerakoan harriak leku batetik bestera mugitzeko makinarik ez zegoeneko garaiak gogorarazten dizkigu.

Baserriko lanari lotutako Herri Kirolen beste modalitate batzuk daude: belarra segaz moztea; lasto-fardelak jasotzea; txingak eramatea, esne-ontziak eskuetan garraiatzetik datorrena, eta lokotxak biltzea, Euskal Herrian hain hedatuta zegoen artoaren uzta-bilketatik datorrena.

Zenbait aberek ere, baserrietako bizitzaren partaideak zirenez, Herri Kirolen modalitate ezberdinetan parte hartzen dute, adibidez, harriak arrastaka eramatea. Proba honetan astoak, zaldiak eta idiak erabiltzen dira, ezagunenak eta arruntenak idi-probak izanik.

Txakurraren betebeharrak artzain txakurren lehiaketan zerikusi handiagoa du azkartasunarekin eta zuhurtasunarekin indarrarekin baino. Lehiaketa hauetan "gizonaren lagunik onenak" artalde bat gidatu behar du artzainak ematen dizkion aginduen arabera.

Antzinako arrantzaleen lan nekosoak Herri Kirolen modalitaterik ikusgarri eta politenetako bat utzi digu: traineruen estropadak. Gaur egungo kirola lana zenean, arrantzaleak itsasora joaten ziren eta jo eta ke arraun egiten zuten arrantzagune oparoetara joateko eta bertan harrapatutako guztia ahalik lasterren portura eramateko.

Meatzaritzaren mundutik ere heldu zaigu kirol mota bat, "harri-zulatzaille"en lehiaketa. Proba honetan kirolariek harrizko blokeak burdin haga batez kolpatuz zulatu behar dituzte.

Baina Herri Kirol guztiak ez datoz lan-mundutik. Gure herrixketako eliz atariak euskaldunen artean gehien hedatu den kirolaren sorburua eta eskola izan dira: pilota

Kirol honen modalitateen artean (esku-pilota, pala, erremontea, sarea, zesta-punta...) gure mugetatik kanpo ospe handiena lortu duena zesta-punta izan da.

Hego eta Ertamerikako herrialde askotan, Estatu Batuetan, Kuban eta Filipinetan adibidez, partida zorabiagarriak eta diru mordoa jokatzen direneko pilotalekuak daude, "Jai-Alai" famatuak.

Izan ere, apustuak Herri Kirolen modalitate guztietan egiten dira, kirol hauen xarmaren, ohituren eta ikuskizunaren parte bat baitira. Harri-jasoketa, aizkora edo sega bezalako probetan, sarritan kirolariek beraiek bultzatzen dituzte apustuak.

***Jakina denez, Herri Kiroletarako behar den baldintzetako bat indar fisikoa da. Hala ere, bada azpimarratu beharreko zerbait: kirolarien artean ez dago kontaktu fisikorik. Herri Kirolen modalitateen barruan ez dago indarkeriarako edo erasoaldirako inolako aukerarik. Ahalegin guztia, indar guztiak, nork bere burua eta arerioa gainditzeko erabiltzen dira. Arerioarekiko eta epaileekiko begirunea oso handia da modalitate guztietan eta epaileen erabakiak kiroltasunez onartzen dira.***